


08

Segurtasunerako gaitasunak, bizitzarako gaitasunak
Mugikortasun segururako hezkuntza-programazioak

Adi arriskuari!



Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Segurtasunerako gaitasunak, bizitzarako gaitasunak

Mugikortasun segururako hezkuntza-programazioak

- 00 Sarrera
- 01 Espazio segurua
- 02 Hiria esploratuko dut
- 03 Bakarrik, kalean barrena
- 04 Nire ardura ere bada
- 05 Bizikletaz, erabil ezazu burua
- 06 Neuk aukeratzen dut
- 07 Gidatzera!
- 08 **Adi arriskuari!**
- 09 Neuk erabakitzen dut
- 10 Alkohola eta gidatzea
- 11 Neure burua babesten dut, eta zu babesten zaitut
- 12 Gurasoen bilera (1)
- 13 Gurasoen bilera (2)
- 14 Gurasoen bilera (3)
- 15 Estresa
- 16 Segurtasuna irakastea
- 17 Nire gidatzeko modua egokituko dut
- 18 Kristalezko bola

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

Argitaraldia:	1.a., 2111ko azaroa
Ale-kopurua:	1.500 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Herrizaingo Saila
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Egileak:	M. ^a Jesús Iturralde Arriaga, Martín Gil Osoro, Francesc Esteban i Amat, Brenda Pina León, Letizia di Bartolomeo eta Anna D'Aniello
Koordinazioa:	M. ^a Jesús Iturralde Arriaga eta Martín Gil Osoro
Diseinua eta irudiak:	Tiktak Multimedia S.L.
Itzulpena:	Aixe S.L.
Ikus-entzunezko materiala:	Imago S.L.

Lan hau Cyclus Printen argitaratu da, papera % 100 birziklatua da, eta besteak beste ziurtagiri hauek ditu: Aingeru Urdina, Iparraldeko Beltxarga, Etiketa Ekologiko Europarra, ISO 14001 eta EMAS. Informazio gehiago hemen: <http://www.cyclus.dk>

Adi arriskuari!

Informazio orokorra

Norentzat

14 – 18 urte bitarteko gazteentzat

Denboraren banaketa

1. saioa: 1 ordu. 2. saioa: 1 ordu. 3. saioa: 1 ordu. = 3 ordu.

Programazioaren erabilgarritasuna

Adin horretako gazte gehienak ohituta daude oinezko gisa modu autonomoan ibiltzera, eta gazte askok bizikleta erabiltzen du ohiko garraiobidetzat, leku batetik bestera joateko. Adin-tarte horretan, gainera, gazteek aukera izango dute ziklomotorrak gidatzeko, eta adin-tarte horretatik aurrera, gidabaimena lortzeko ere bai. Hori dela-eta, garrantzitsua da urrats honetan oinarrizko bi gaitasun lantzea: arreta eta zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia.

Tartean diren gaitasunak

Gaitasunak	Maila
Arreta	3
Zaurgarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia	2-3

Adi arriskuari!

Edukiak, gaitasunen arabera

Informazioak eta kontzeptuak	Trebetasunak	Balioak eta jarrerak
Arreta 3. maila: Arretaren kalitatea aitortzen du, mugikortasun segurua mantentzeko.		
- Arreta hautakorraren kontzeptua. - Arreta iraunkorraren kontzeptua. - Arreta banatuaren kontzeptua. - Arreta galarazten duten elementuak: kontzeptua eta identifikazioa.	- Bide-segurtasunarekin zerikusia duten estimulu garrantzitsuak bereiztea.	- Erantzukizuna: bide-portaeran etengabeko zaintza behar duela jabetzea. - Guztia kontrolatzea ezinezkoa dela onartzea.
Zaugarritasunaren eta arriskuaren kontzientzia 2. maila: Arrisku-egoerak balioztatzen ditu, ez norberak jasan dezakeen kaltearen arabera bakarrik, baita beste pertsonengan eragin dezakeen kaltearen arabera ere.		
- Arriskuaren oinarrizko kontzeptua. - Arriskua kaltearen eta zaugarritasunaren arteko erlazio gisa. - Arrisku subjektiboa eta arrisku objektiboa.	- Norberaren segurtasuna nahiz gainerakoena jokoan dauden arrisku-egoerak aztertzea. - Arriskua eta zaugarritasuna bereiztea.	- Norberaren zaugarritasuna onartzea. - Norberaren egintzekiko erantzukizuna.
3. maila: Senezko autobabesetik babes planifikatura pasatzen da trafiko-egoera ohiko-enetan.		
- Arriskua, galzoria eta zaugarritasuna. - Trafikoaren arazoa eta horrek norberaren bizitzan dituen inplikazioak ezagutzea. - Arrisku-faktoreak.	- Autoazterketaren bidez, norberaren mugak.	- Autoezagutza. - Norberaren mugak onartzea. - Autobabesa. - Erantzukizuna. - Gidatze prebentiboa.

Adi arriskuari!

Programazioaren helburu orokorrak

- Eguneroko egoeretan arriskua aintzat hartzea.
- Batzuetan, dugun arreta-maila segurtasuna bermatzeko ez dela nahikoa erakusten duten egoerak bizitzea.

Programazioaren eskema orokorra

1. saioa	Arreta eta kontzentrazioa	1 ordu
1.1. jarduera	Arreta neurtzeko testa Ariketa eta taldeko eztabaida	20'
1.2. jarduera	Zer aldatu da? Jolasa eta elkarrikketa gidatua	20'
1.3. jarduera	Arretaz ibili beharreko egoeren bila Ideia-jasa talde txikietan, eta bateratze-lana talde handian	20'
2. saioa	Zaugarritasuna eta galzoria	1 ordu
2.1. jarduera	Galzoriaren eta arriskuaren arteko ezberdintasunak Kasua eta taldeko eztabaida	20'
2.2. jarduera	Errotuladorea Ariketa analogikoa eta elkarrikketa gidatua	20'
2.3. jarduera	Arriskua aintzat hartuko dugu Lana talde txikian eta elkarrikketa gidatua	20'
3. saioa	Zer erabakiko dut?	1 ordu
3.1. jarduera	Kaskoa ala azterketa? Dilema morala	35'
3.2. jarduera	Zer eramango dut? Galdera irekiak eta bateratze-lana	25'

informazio orokorra	edukiak, gaitasunen arabera	helburuak eta eskema orokorra	1	2	3

Adi arriskuari!

1. Saioa. Arreta eta kontzentrazioa

1.1. Jarduerarako fitxa. Arreta neurtzeko testa

20 minutu 

Helburua:

- Arretaren eta kontzentrazioaren arteko ezberdintasuna esperimentatzea.

Metodoa:

Ariketa eta taldeko eztabaida.

Nola egin:

Hezitzaileak zirkuluerdian jarriko ditu parte-hartzaileak, guztiek modu erosoan ikus dezaten [proiektatuko duen bideoa](#). (● DVD)

Bideoa jarri aurretik, azalduko die bere garaian Daniel J. Simons-ek Illinoiseko Unibertsitatean egindako esperimentu bat egingo dutela.

Hezitzaileak esango die esperimentu horrek pertsonok dugun arreta mantentzeko edo kontzentratzeko ahalmena balioztatzeko balio duela.

Bideoan, bi talde agertuko direla kontatuko die: talde bateko kideek elastiko zuria izango dute, eta beste taldekoek elastiko beltza. Talde bereko kideek saskibaloiko baloia pasatuko diete elkarri, eta alde batetik beste aldera mugituko dira. Bideoan ikusiko dutena azaldu eta gero, hezitzaileak honako kontsigna hau emango die:

Arretaz ikusi behar duzue, eta zenbatu zenbat aldiz pasatzen dioten baloia elkarri elastiko zuridunen taldeko kideek. Baina adi: soilik talde zuriaren paseak zenbatu behar dituzue. Esperimentua baliozkoa izan dadin, bideoa behin bakarrik ikusita zenbatu behar dira paseak.



DVD 
[Bideoa: Arreta neurtzeko testa](#)

Zalantzarik baldin badago argitu egingo du hezitzaileak, eta bideoa ikusiko dute gero. Bideoa amaitzen denean, honako galdera hau egingo die:



- Zenbat aldiz pasatu diote baloia elkarri?
(Hezitzailearentzako oharra: 18 aldiz)

Talde zuriko kideen artean baloia zenbat aldiz pasatu dioten elkarri argitzen dutenean, hezitzaileak jakinaraziko die hori ez dela izan benetako testa; benetan garrantzitsua honako galdera honi erantzutea dela:



- Ikusi al duzue arreta eman dizuen ezer?


Ezer ikusi ez duten parte-hartzaileak lasaituko ditu hezitzaileak, eta berriz ikusiko dute bideo bera; bigarren ikustaldian, baina, arreta jarri beharko dute pantaila zeharkatuko duen animalia ikusteko.



- Zer ezberdintasun dago lehenengo ikustaldiaren eta bigarrenaren artean?
- Zer ezberdintasun dago kontzentratuta egotearen eta adi egotearen artean?

Ondorioa:

Parte-hartzaile gehienak kontzentratuta egongo dira jokalarien paseak zenbatzeko, eta, era inkontzientean, haien garunak «beharrezko ez den informazioa» alde batera utziko du. Hori egunero gertatzen zaigu. Ikusmenaren bitartez informazio-kopuru handia iristen zaigunez garunera, joera dugu, era inkontzientean, informazio hori gehiago edo gutxiago iragazteko eta soilik beharrezkotzat jotzen duguna prozesatzeko. Gainerakoa alde batera uzten dugu.



Adi arriskuari!

1. Saioa. Arreta eta kontzentrazioa

1.2. Jarduerarako fitxa. Zer aldatu da?

20 minutu



Helburua:

- Kanal bakarrean kontzentratu ordez, kanal guztiak irekita izatearen garrantzia balio-estea.

Metodoa:

Jolasa eta elkarriketa gidatua.


Nola egin:

Hezitzaileak zirkuluerdian mantenduko ditu parte-hartzaileak. Boluntario bat eskatuko du, ariketa bat egiteko.

Pertsona boluntario horri eskatuko dio arretaz beha ditzala ikaskideak, 30 segundoz. Denbora hori pasatu eta gero, begiak estaliko dizkio zapi batez. Bitartean, ikaskide biri eskatuko die elkarrekin lekua alda dezatela. Aldaketa egin eta gero, boluntarioari zapia kenduko dio begietatik. Ikaskideak beha ditzala eskatuko dio, eta ea ezberdintasunik ikusten duen ala ez galdetuko.

Ariketa hori hainbat aldiz egingo dute, baina aldi bakoitzean gero eta pertsona gehiago aldatuko da lekuz. Gero, bestelako aldaketak egingo dira, pixkanaka (arropa aldatu, adibidez), eta boluntarioari zenbat aldaketa egin diren jakinaraziko zaio.

Halaber, arreta-galtzaile batzuk ere sar daitezke, esate baterako: atea kolpe batez itxi, zenbait pertsona elkarrekin hizketan hasi, eta abar.



Ondorioak:

- 1- Normalean, ez dugu behar beste balioesten entzumena.
- 2- Batzuetan, ohartzen gara zerbait aldatu dela, baina ez dugu jakiten zer, zehazki; eta horrek adiago egotera behartzen gaitu. Animalien eta usaimenezko semaforoaren adibideak erakusten digu hori (diotenez, mendietan, animaliak adi ibil daitezen errepideak zeharkatzen dituztenean autoek harrapa ez ditzaten, errepidearen bi alboetan fisiologikoki adi egonarazten dien usaina darien bi belaki jartzen dira. Beraz, errepidea zeharkatu aurretik, arreta jartzen dute –beste animalia horrekin topo egin ez dezaten–, eta autoak hautematen dituzte, baldin autoreen bat hurbiltzen bada).

Hezitzailearentzako oharra:

Arretaren funtzioak:

- Hautakorra: bere segurtasuna mantentzeko, arreta kanpoko estimulu garrantzitsuetan fokalizatzeke ahalmena, garrantzirik ez dutenak alde batera utzita.
- Iraunkorra: denboran jarraitua eta iraunkorra den arreta-maila mantentzeko ahalmena.
- Banatua: trafikoaren estimulu garrantzitsu ugariarengan arreta mantentzeko ahalmena, bere segurtasuna arriskuan jarri gabe.
- Azaleko arreta: bereziki ezertan arreta jarri gabe, egiten ari den ekintzan bertan izateko ahalmena; hortaz, normala ez den estimuluren bat dagoenean, arreta-mekanismoa pizten du estimulu horrek, eta arreta selektiboaren funtzioa erabiltzen dugu.

informazio orokorra	edukiak, gaitasunen arabera	helburuak eta eskema orokorra	1	2	3
---------------------	-----------------------------	-------------------------------	---	---	---

Adi arriskuari!

1. Saioa. Arreta eta kontzentrazioa

1.3. Jarduerarako fitxa. Arretaz ibili beharreko egoeren bila 20 minutu

Helburua:

- Identifikatzea zein mugikortasun-egoeretan den garrantzitsua arreta handiagoz ibiltzea, horri esker segurtasuna ere handitzen baita.

Metodoa:

Idea-jasa talde txikietan, eta bateratze-lana talde handian.

Nola egin:

Hezitzaileak lau eta sei kide arteko talde txikietan jar daitezten eskatuko die parte-hartzaileei.

Azalduko die galdera bat egingo diela, eta beraiek ahalik eta erantzun gehien eman behar dituzte, telebistako «Un, dos, tres...» lehiaketa ezagunean bezala. Parte-hartzaile bat taldeak esaten duen guztia idazten saiatuko da.

Jolasaren nondik norakoak ulertu dituztenean, honako galdera hau egingo die hezitzaileak:



Bideari loturiko zein egoeratan da bereziki garrantzitsua arreta handiz ibiltzea, gatazkarik izan ez dezagun? Adibidez: telefono mugikorrez hitz egiten joatea oinezkoen igarobidea zeharkatzen ari garenean. Bat, bi, hiru... eman beste erantzun bat.

Minutu batzuen buruan, zerrenda gainerako ikaskideekin batera dezaten eskatuko die hezitzaileak, eta erantzunak irakurriko eta haiei buruzko iruzkinak egingo dituzte.

(Hezitzailearentzako oharra: erantzunen zerrendak jaso behar dira, prestakuntzako hurrengo saioan erabiliko baitira).

Ondorioa:

Hasieran pentsatu baino zirkulazio-egoera gehiagotan ez dut jartzen behar besteko arretarik, eta arretaz ibili beharko nintzateke.

Adibideak: arretaz ibili beharreko bide-egoerak.

- Bizikletaz ibiltzea, euria ari duenean.
- Bidean ibilgailu asko dabiltzanean gidatzea.
- Futbola entzutea, gidatzen ari garen bitartean.
- Kalea zeharkatzea, oinezkoen igarobidetik kanpo.
- Semaforoa pasatzea, MP3 gailua entzunez.
- Semaforoa, argi gorria duenean pasatzea.
- Nekatuta gaudenean gidatzea.
- Eta abar.

Adi arriskuari!

2. Saioa. Zaurgarritasuna eta galzoria

2.1. Jarduerarako fitxa. Galzoriaren eta arriskuaren arteko ezberdintasunak 20 minutu

Helburua:


- Galzoria, arriskua eta zaurgarritasuna kontzeptuak bereiztea eta horien gainean gogoeta egitea.

Metodoa:

Kasua eta taldeko eztabaida.

Nola egin:

Parte-hartzaileak lau eta sei lagun arteko talde txikietan jarriko dira, eta hezitzaileak orri bat emango die. Orrian, hainbat motatako bidegurutzeen irudiak egongo dira. (● DVD)



Parte-hartzaileek honako galdera hauei erantzun behar diete:



- Bidegurutze horietako zein da arriskutsuena? Zergatik?
- Hiru egoera horietako zeinetan dago galzoririk handiena?
- Galzoria bera izango al da adineko bat pasatzen bada, ala heldu bat pasatzen bada? Eta zeinetan izango da arrisku handiagoa?

DVD



Eranskina: Galzoriaren eta arriskuaren arteko ezberdintasunak

Talde txikian egin beharreko lana bukatu eta gero, erantzunak talde handian azaldu behar dira.

Parte-hartzaileek kontzeptuen gainean eztabaida egin behar dute (ikus eranskina: «arriskua, zaurgarritasuna eta galzoria kontzeptuak»). (● DVDa edo koadernotxo honetako 19. eta 20. orrialdeak)

Jardueraren amaierarako, taldeak bat etorri beharko du honako hauetan:

- Arriskuak kaltearekin zerikusia du (neure buruari edo beste pertsona batzuei egin diezaiekedan kaltea).
- Zaurgarritasunak kalte-kopuruarekin zerikusia du (ondorioak zenbat eta kaltegarriagoak izan, orduan eta zaurgarriago izango naiz).
- Galzoriak zerikusia du zerbait gertatzeko probabilitatearekin, kalte-kopuruarekin, kaltea jasan duen jende-kopuruarekin eta kaltea agertu arte igarotzen den denborekin (horregatik, galzoria handiagoa izango litzateke autobus-istripu batean auto-istripuan baino; galzori handiagoa izango litzateke zubitik erortzean estropezu egitean baino; eta galzoria handiagoa izango du elektrokutatzeak, zigarroa erretzeak baino).



Eranskina: Arriskua, zaurgarritasuna eta galzoria kontzeptuak

Adi arriskuari!

2. Saioa. Zaurgarritasuna eta galzoria

2.2. Jarduerarako fitxa. Errotuladorea

20 minutu 

Helburuak:

- Zaurgarritasuna beldur-emozioarekin lotzea.
- Beldurra eta zaurgarritasun-sentsazioak bidearekin lotzea.

Metodoa:

Ariketa analogikoa eta elkarriketa gidatua.

Nola egin:

Hezitzaileak bi boluntario eskatuko ditu. Boluntarioak bata bestearen aurrean jarriko dira, elkarrengandik zenbait metrotara, eta hezitzaileak bietako bati errotuladore lodi bat emango dio. Errotuladorea ikaskideari jaurti diezaiola eskatuko dio.

Hainbat jaurtiketa egingo dituzte, bien arteko tarte handituz edo txikituz; eta honako hau galdetuko die hezitzaileak:



- Non egon zarete erosoago, errotuladorea eror ez zedin?
- Zergatik?

Bien bitartean tarte egokia zein den erabaki eta gero, ariketa bera egin dezaten eskatuko die hezitzaileak, baina errotuladoreari tapoia kenduko dio, oraingoan. Gero, honako galdera hau egingo die hezitzaileak:



- Zer alde dago errotuladorea tapoiarekin eta tapoirik gabe jaurtitzearen artean?

Hezitzaileak parte-hartzaile guztiek elkarriketan parte har dezaten saiatu behar du, eta gogoeta egin behar dute galzoria, arriskua eta zaurgarritasuna kontzeptuen gainean.

Besteak beste, honako galdera hauek egin daitezke:



- Zer arrisku izan da egoera bakoitzean?
- Zer ondorio izan zitzaketen arriskuek?
- Arriskua nabaritu duzuenean, zein babes-estrategia jarri duzue martxan?
- Bestelako zein portaera izan zenezaketen?
- ...

Ondorioa:

Nik neure emozioekin konektatzen dudan heinean, nire zaurgarritasuna sentitzen dut; horri esker galzoria hobeto hautematen dut eta, beraz, prebentzio-jokabide gehiago izaten ditut.

Adi arriskuari!

2. Saioa. Zaurgarritasuna eta galzoria

2.3. Jarduerarako fitxa. Arriskua aintzat hartuko dugu

20 minutu



Helburua:

- Bideko egoera zehatzetan, zaurgarritasun- eta arrisku-sentsazioa eta kontzeptua aplikatzea.


Metodoa:

Lana talde txikian.

Nola egin:

Lau eta sei lagun arteko taldeak egingo dira. Jarraian, 1.3. jardueran egin zituzten erantzunen zerrendak banatuko dizkie hezitzaileak.

Egoera horietako bakoitzean zenbateko galzoria/arriskua eta zaurgarritasuna dagoen adierazi beharko dute. Gainera, egoera bakoitzeko galzoriari 0 eta 6 bitarteko puntuazioa eman beharko die.



Taldean emaitzak bateratu eta gero, argi eta garbi esango die hezitzaileak erantzunak justifikatu behar dituztela. Halaber, proposatutako bide-egoera bakoitzean zein prebentzio-jokabide izan daitekeen ere adierazi beharko dute.

Autogogoetan sakontzeko, hezitzaileak eskatuko die, banaka jarrita, adieraz dezatela bide-egoera horietako zein diren ohikoenak beraien egunerokotasunean, zergatik egiten dituzten, zer sentitzen duten, zer pentsatzen duten egoera horietan daudenean, eta abar.

Elkarrizketa gidatua

Hezitzaileak taldea bideratuko du, bide-egoera arriskutsuetan izan ohi diren eredu komunak identifika ditzan, eta eredu horiek istripuen zergatiekin lotzen saiatuko da. Baldin taldeko parte-hartzaileak nahiko helduak badira, ondorioztatuko dute faktore jakin batzuk («arrisku-faktore» deritzenak, hala nola, alkohola edatea, gehiegizko abiaduran ibiltzea, arreta galtzea, eta abar) istripuen kausa komun izaten direla askotan.

Ondorioa:

Edozein egoeratan, zenbat eta ziurtasun txikiagoa izan geure buruarengan, orduan eta handiagoa izango da galzoria.

informazio orokorra	edukiak, gaitasunen arabera	helburuak eta eskema orokorra	1	2	3

Adi arriskuari!

3. Saioa. Zer erabakiko dut?

3.1. Jarduerarako fitxa. Kaskoa ala azterketa?

35 minutu 

Helburua:

- Hartzen ditugun erabakietan segurtasunari ematen diogun garrantzia balioztatzea.

Metodoa:

Dilema morala.

Nola egin:

Hezitzaileak dilema bat zer den azalduko die: dilema istorio bat da, eta horren gaineko erabaki bat hartu behar da, baina bi aukera baino ez dira izaten. Bi aukeretako bat hautatu behar da; biak dira onargarri, eta aldeko eta kontrako arrazoiak dituzte.

Dilema zer dena zaldu eta gero, istorio bat ikusiko dute bi aldiz: [Kaskoa ala azterketa?](#)

( DVD)



DVD 
[Bideoa: Kaskoa ala azterketa?](#)

Istoriaa ikusi eta gero, hezitzaileak parte-hartzaileei eskatuko die erabaki dezatela istorioko protagonistaren larruan izango balira zer egingo luketen. Oso garrantzitsua da parte-hartzaileak libre sentitzea erabakia hartzeko; erabakia ez dute lotu behar hezitzaileak izan dezakeen iritziarekin. Hartuko duten erabakiaren arabera, bi talde egingo dira. Lehenengo aukeraren alde daudenak bere eskuineko aldean jar daitezela eskatuko die hezitzaileak, eta bigarren aukeraren aldekoak ezkerreko aldean.


Bi aukerak sortu direnean, azpitaldeak egingo dira (lau eta sei pertsona artean izango ditu azpitalde bakoitzak), bi aukeretan azpitalde-kopuru berdintsua izan dadin saiatur.

Azpitalde bakoitzak bere aukera hautatzeko izan dituen arrazoen gainean gogoeta egingo du. Azpitalde bakoitzeko bozeramaileak beren arrazoiak azalduko dizkio talde osoari.

Bozeramaile guztiek azalpenak eman eta gero, eztabaida egingo dute talde handian, eta parte-hartzaile bakoitzak arrazoien alde edo kontrako iritzia emateko aukera izango du.

Eztabaidan, parte-hartzaileetako edozein lekuz alda daiteke, baldin iritzia aldatzen badu. Hezitzaileak neutral izan beharko du, eta dilema ebatzi gabe utzi beharko du saioa amaitzen denean.

Hezitzaileak eztabaida moderatu eta piztu behar du, hori baino ez; ez du bere iritzia eman behar.



informazio orokorra	edukiak, gaitasunen arabera	helburuak eta eskema orokorra	1	2	3
---------------------	-----------------------------	-------------------------------	---	---	---

Adi arriskuari!

3. Saioa. Zer erabakiko dut?

3.2. Jarduerarako fitxa. Zer izango dut beti gogoan?

25 minutu



Helburuak:

- Ikasitako guztiaren eta horrek guztiak nire bide-portaeran dituen ondorioen gainean gogoeta egitea.
- Nire segurtasuna hobetuko duten portaerak izaten hasteko konpromisoak hartzea.

Metodoa:

Galdera irekiak eta bateratze-lana.

Nola egin:

Parte-hartzaileak zirkuluerdian eseriko dira horma baten aurrean, eta horman bi mural huts zintzilikatuko ditu hezitzaileak.

Gero, parte-hartzaile bakoitzari orri bat emango dio, eta behean dauden galderak izango dira orrian (● **DVDa**, edo **liburuxka honetako 17. orrialdea**). Libreki eta izenik jarri gabe erantzun ditzatela eskatuko die.

Erantzun dituztenean, orria erdibituko dute (orriaren zati bakoitzean galdera baten erantzuna izan beharko da), eta galdera beraren erantzun guztiak hormako muraletako batean jarriko dira. Hezitzaileak esango die talde osoari azal diezaiela zer ikasi duten, eta hobetzeko dituzten proposamenak egin ditzatela.

Baldin giroa egokia bada, iritzi-zirkulua proposatuko du hezitzaileak. Jarduera horretan, parte-hartzaile bakoitzak aukera izango du zer ikasi duen eta saioan ikasitako zer izango duen beti gogoan azaltzeko. Baldin boluntariorik ez badago, emandako erantzunetako batzuk irakur daitezke, zoriz aukeratuta.

Garrantzitsua da giro eroso eta konpromisozkoa sortzea, eta bakoitzaren jarrera errespetatzea. Saioa amaitzen denean, erantzun guztiak bilduko ditu hezitzaileak (edo argazkiak atera dakizkieke), amaierako ebaluaziorako balioko baitute.



- Zer ikasi dut saio hauetan guztietan?
- Nire mugikortasunari lotuta, zer alderdi hobetzeko konpromisoa hartuko dut?



Eranskina: Zer izango dut beti gogoan?

ERANSKINA: Zer izango dut beti gogoan?




Zer ikasi dut saio hauetan guztietan?

Nire mugikortasunari lotuta, zer alderdi hobetzeko konpromisoa hartuko dut?

Arriskua:

Gaitzen bat gertatzeko arriskua.



Zaurgarritasuna:

- Kalte jasateko edo zauritua izateko suszeptibitatea.
- Zauritua edo kaltetua izan daitekeela, edo lesioren bat jasan daitekeela.

Beraz, esan daiteke erorketen aurrean adinekoak zaurgarriago direla helduak baino, min handiagoa jasan dezaketelako.



Galzoria:

ARRISKATZEA:

Arriskua hartzea. Norbera edo/eta besteren bat galerak jasateko egoeran jartzea. (Latinetik dator: «risicare» = haitz edo arroka bati itzulinguru eginez nabigatzea)


GALZORIA:

Denborari loturik fenomeno batek kalte eragiteko duen ahalmena (kalte pertsonala eta materiala). Honela kalkulatzen da: hondamendia gertatzeko probabilitatea (arriskugarritasuna) bider zaurgarritasuna –ehuneko jakin batean– eta esposizioa (biktima-kopurua). Nazio Batuen Erakundeak emandako definizioa da.

ARRISKUAREN LEGEAK


Zenbat eta handiagoa kaltea, handiagoa arriskua.

Ibilgailu bat 30 km/h-ko abiaduran badabil, eta beste bat 60 km/h-ko abiaduran, bigarren ibilgailuak arrisku handiagoa izango du, istripua izango badu kaltea ere handiagoa izango delako.



Zenbat eta jende gehiago, arriskua handiago.

Bidaia-erakundeak daramatzan autoaren eta barruan bidaia-erakundeak dituen autobusaren artean, arrisku handiagoa du bigarrenak; izan ere, istripuren bat baldin badu, kaltea berbera izan arren, tartean jende gehiago izango da bigarrenaren.



Zenbat eta lasterrago agertu, orduan eta arriskutsuago.


20 urteren buruan paraplegia ekarriko duen gaixotasunak arrisku txikiagoa du, bat-batean paraplegia eragingo duen istripuak baino.



Arriskua, zaurgarritasuna eta galzoria:


Arriskua:

Arantza sartzeko aukera.



Zaurgarritasuna:

Arantza sartzen badut, horrek eragingo didan min-kopurua.



Galzoria:


Egunero kaktusaren albo-tik pasatzen baldin banaiz arantza sartzeko dudak probabilitatea.




Autoa, baldin oliorik gabe geratzen bada, erre dadin dagoen aukera.




Autoa zenbateraino erreko den (ea soilik pieza bat urtuko den, ea motorra urtuko den ala autoa osorik erreko den).



Hori gertatzeko probabilitatea.



Biriketako minbizia izateko aukera.



Zenbateraino naizen sentibera hori gerta dakidan.



Egunean zigarro-pakete bat erretzen badut hori gertatzeko dudak probabilitatea.



Arriskua ez dago substantzietan, garraiatzeko era ez seguruan baizik; hau da, arriskua ez da haurrari kopa puskatzeko aukera (zaurgarritasuna), kopa erortzeko aukera baizik. Hori gertatzeko probabilitatea (berrehun alditik behin erortzen zait) da galzoria.